

# BERRIGARA


37. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, urriak 18



**Sailburu  
izandakoarekin  
berriketan**



**Bizi  
Alternatiboa  
V. edizioa**



**Azaro-abendu  
Musikala**



**Gomez de  
Segura  
fitzaketa**



**CALIBRA**  
*by Opel*

**BENETAKO  
INGENIERIA ALEMANA**




**TALLERES  
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46  
BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEN:  
Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA  
ETA GOIERRI GARAIrako

Espereintziar onenak

**OPEL**  
Kontzesionario ofizialak



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

Pintxoak, eguneroko menua eta  
karta bereziak ditugu  
Betiko eta oraingo sukaldaritza



**ARGAZKI**

**18 URTEAN**

**ZURE**

**ZERBITZUAN**

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66

*Berriz ere zuekin*

**GALDE DEBALDE**

**hemen pentsatu beharra dago.**

**SANTOS**

**IRRATI - TB**

Elektragailuak  
Sukaldeko Altzariak  
Argiztapena  
Antena instalazioak  
Elektragailuen konponketa

Mahasterreka 2, Tfnoa: 76 26 10 BERGARA



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 760397

**Laguntzailea:** Bergarako  
Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberezibar

**Erredakzioa eta  
maketazioa:**

Eneko Azkarate, Eduardo  
Mendibil

**Publizitatea eta  
harpidetzak:**

Aitor Aranzabal, Iñaki  
Arietaleaniz eta Edurne Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose  
Angel Mikeo, Estepan Plazaola  
eta Juan Martin Elxpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.  
Urzelai, Mariipi Laskurain, Ainhoa  
Lete, Jon A. Bengoa, Mikel  
Lizarralde, Monika Belastegi,  
Mikel Elkoroberezibar, Josune  
Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber  
Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa  
Bikuña

**Argazki laborategia:**

A. Gallastegi, B. Cantero, M.  
Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,  
J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,  
Txomin Retolaza, Kifu eta Pol-  
Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**  
Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri  
Taldea

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Tirada:** 2.500 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain  
hartzeko aldizkarian adierazitako  
esanen eta eritzien erantzunkin-  
tzunik.



**Idarra baserriaren aldeko jaialdia**

izango da bihar larunbata, hilak 19, Udal Pelotalekuan. Arantzazu Loidi gai-jartzaile eta Iñaki Murrúa, Jesus Egileor, Koldo Egileor, J.L. Gorrotxategi, Sebastian Lizaso eta Jon Sarasua arituko dira bertsoetan. Horrez gain, Xamatx dantzataldeak eta Ritxar Cuevas eta Imuntzo trikitilariak ere hartuko dute parte orain gutxi erretako baserriaren aldeko jaialdi honetan.

**LARUNBATA  
19**

- Kontzertuak:
  - Aretxabaletan *Citizen Fish* 23etan.
- Herri artisten jaialdia:
  - Gaueko 10.15 Pelotalekuan dultzaineroak, txistulariak, dantzariak, txiste kontalariak, Amorru eta Korkoil
- Pelota Partiduak:
  - 4.30etan Bergarako Pelotalekuan: *Soroa li-Rete-gi IV / Zabala-Errasti, Bengoetxea IV-Tolosa / Salaberria -Zezeaga eta Iraola-Alberdi III / Loiarde-Unzain..*

**ASTELEHENA  
21**

- Bizi alternatiboa:
  - Eskubaloiarekin zeri-kusia daukaten jolasak. 6etan hasita Seminarioan.
  - Tertulia: Gazteen parte hartzea gizarteko arlo desberdinetan. 7.30etan Kultur Etxean.

**ASTEARTEA  
22**

- Bizi alternatiboa:
  - Taun-Taun Show 6etan hasita San Martin Plazan.

**FARMAZIAK**



- 19 Estella/Gauetz: Irizar (Arrasaten)
- 20 Estella/Amezua
- 21 Mozos/Ruiz
- 22 Camacho/Morales
- 23 Puy/ Azcoaga
- 24 Guallar/Español
- 25 Estella/Irizar

**ZINEA**



**Rocketeer**

- OSTIRALA: 10.30etan
- IGANDEA: 5, 7.30 eta 10.15etan.
- ASTELEHENA: 7.30etan

*El amor si tiene cura*

- LARUNBATA: 5, 7.30 eta 10.30

**OGIA**



**Mizpildi**

**ANTIA** HARATEGIA  
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**MAKAILO**  
**ETXEA**  
Makallau kazuelak gertatzen ditugu  
Ibargarai 15

**Ziripot**  
Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

## Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



## LIZAR

### Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

## Mujika Jantxidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

## Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65

### Herriari mila esker

**O**rain bederatzi bat hilabete, Andoaindik testigua hartu eta *Kilometroak 91*n pentsatzen hasi ginenean, gutxi genekien zer zetorkigun gainera. Baina herri guztiak bihotza, burua eta eskuak eskaini zituen, eta eraginkortasun haundiz aurre egin zitzaion proiektuari.

Gure eskerrik beroenak Kultur hamabostaldi ederra eratu duzuenoi, zirkuitoa apaindu eta ondo zaindu duzuenoi, *Kilometroak 91*ren helburu ekonomikoa lortzeko dirua batzen ibili zaretenoi, urriaren 6rako zeuden ikuskizunik onenak ekartzen eta antolatzen jardun duzuenoi, tabernak prestatu eta zerbitzurik onena eskeintzen saiatu zareten kamarero eta sukaldariorik, kalitate oneko jenerorik merkeena erosten ahalegin du zaretenoi, kanpaina guztian publizitaterik zabalena egin duzuenoi, *Kilometroak 91*ren salgaiak sailkatu, banatu eta saltzen aritutakooi, trafikoa gidatu eta aparkalekuak hain fin eratu dituzuenoi, zirkuitoko egituren muntaia lanetan hainbeste ahalegin du zaretenoi.



Mila esker, era berean, Antzuola eta Elgetatik esku bat botatzera etorri zaretenoi, Oñati eta Andoaingo *Kilometroak 89* eta *90*en antolatzaileoi, eman diguzuen laguntza baliotsuagatik eta Bergarako Udalarari.

Zuen lan isil eta gogatsuak burutu du *Kilometroak 91*.

Eskerrik asko eta Zorionak!


*Kilometroak 91*  
*Batzorde Iraunkorra*

### Negozio ederra

**T**abernariak *Kilometroak* bezalako egunetan azaltzen duten jokaera salatu nahi dut; lehenbizi zerbitzu ezin txarragoa eskeintzen dute (komunak itxi, plastikozko edalontziak... etab) eta bestetik, honelako egunak prezioak igotzeko aprobetxatzen dituzte. Nork kontrolatzen ditu? Dagokionak horren kontrola eta hartu beharreko neurriak har ditzala, kontsumitzaileekin jokatzen ari dira eta.

Nerea L.

Tiira ba!



Josu Okina

□ **Sikomotrizitatea**  
Bergarako UNEDeko Sikomotrizitate Eskolak antolaturik, hilaren 25, 26 eta 27an *Sikomotrizitate Praktikako Lehenengo Ihardunaldiak* burutuko dira Gasteizko Europa Jauregian. Informazio gehiago Bergarako UNEDen edo eta 76 13 42 telefonora deituz jaso dezakezue.

□ **Mendi irteera**  
*Gorla Alpino* eta *Pol-Pol Mendizale taldeak* mendi irteera antolatu dute iganderako, hilak 20. Bizkaiko Enkarterrietatik ibiliko zaizkigu mendizaleak honako honetan. *Balmaseda-Kolitz*a eta *Karrantza* artean egingo da ibilbidea eta irteera goizeko 6 t'erdietan izango da plazatik. Egun ederra igarotzeko aukera ederra.



## Bi hilabete musika

Asteartean, Udaltxeko Pleno Aretoan, *Bergarako Udalak Musika Eskolarekin* batera antolatzen duen *Azaro-Abendu Musikalaren VI* edizioaren aurkezpena egin zen. Urriaren 27tik abenduaren 20ra bitartean estilo ezberdinetako musikaz gozatzeko aukera izango dugu; korala, instrumentala edota rock musikak ere bere tarte

izango dute prestatutako egitarau zabalean. Lau milioi inguruko aurrekontuarekin, helburu nagusia herritarren musikarako zaletasuna sendotzea litzateke. Hori dela eta prezio popurrak finkatu eta abonoak eskuratzeko aukera eskeiniko da. Ohizkoa denez, Gabonetako Kontzertuak emango dio amaiera musikaldiari.

□ **Emakunde**  
*Emakumearen Euskal Erakundeak* 1991-1994rako emakumeentzako ekintza positiboan plangintza ezagutzera emateko kanpaina ibiltaria burutuko du. Emakumeek duten aukera berdintasunari buruzko informazioa zabaltzen joango den Bulego Mugikorra datorren astelehenean, hilak 21 izango dugu Bergaran; Bonifazio Laskurain pasealekuan, 10 t'erdietatik arratsaldeko ordu 2etara eta San Martin Enparantzan arratsaldeko 4retatik 7etara.

□ **Orkestra**  
*Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak* kontzertua eskeiniko du, hilak 25ean, ostirala, Orduñako Parrokian.

## Zergen gorakada

Bergarako Udalak, astehenean eginiko *Plenoan*, udal zergak eta zerbitzu publikoen prezioak % 7an igotzeko erabakia hartu zuen; uraren edota zabor bilketaren zergak eta beste hainbat zerbitzuren prezioek gora egingo dute 1992an. Merkatoriengan eragina izango duen zergaren ordenantza fiskala ere onartu zen. Bestalde, *Kutxako* ordezkariak izendatzerakoan EAJko eta PSOEko zinegotziek aurrera atera zuten EAJko hiru ordezkari eta PSOEko Javier Cendoyaren izendapena, HBk eta EAK kontrako botoak eman zituztelarik.



**Siberian - husky's**  
arrazako txakur kumeak salgai



Parasitogabetua  
Txertatua  
Pedigriduna

Tfnoa: 76 14 79

**LXUKUN**

**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA

**Aldoka  
Maldoka  
TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA

### Herri Bazkaria

Kilometroak egunean lan egin zutenentzat **Kilometroak 91ko Batzorde Iraunkorrak** Herri Bazkaria antolatu du azaroaren 10erako. Izena emateko epea datorren astetik urriaren 31ra bitartean izango da, eta 1.000 pezeta ordaindu beharko dira.

### Idazlan Sariketa

**Goiherriko Euskal Eskolak** eta **Maizpide Euskaltegiak** hirugarren "**Gerriko**" idazlan sariketa deitu dute.

Aurkeztutako lan guztiek Goiherri dagokion edozein zientzia alorreko ikerketa lanak behar dute izan eta Goiherriko Euskal Eskolara bidali beharko dira apirilaren 1a baino lehen.

Edozein argibide gehiago nahi izanez gero, 16 02 82 telefonora deitu dezakezue.



## Bizi Alternatiboa

Drogak neurritz kanpo kontsumora bultzatzen duten aktibitateen ordez beste ekintza desberdin batzuk bultzatu eta, bide batez, drogomenpekotasunen prebentzioa sendotu nahirik, **Drogomenpekotasunen Prebentziorako Batzordeak Bizi Alternatiboaren** bostgarren edizioa jarriko du martxan urriaren 21etik 27ra bitartean.

Aurreko lau edizioetan bezala, aurtengoan ere ez dira faltako kirola, mahai-inguruak, zinea, txotxongiloak, musika,

jolasak... eta beste hainbat iharduera. Ekitaldi ezberdinak, esan bezala, astelehenetik igandera bitartean izango dira. Amaiera modura, igandean inguruko auzoetan dantzak izango dituzte, eta herri barruan musika-saio, erakusketa, kalejira, bizikleta martxa, etab. ak izango dira.. **Drogomenpekotasunaren Prebentzio Batzordeak** dei egiten die bergarar guztiei parte hartzeko eta bestalde, bere laguntza eskeini duten talde eta pertsona guztiei bere laguntza eskertu nahi die.

### Kirol Argazkiak

**Pol- Pol Mendizale Taldeko** argazki sailak eta **Udal Kirol Zerbitzuak Kirol Argazki Lehiaketa** antolatu dute. Lehiaketan Euskadiko argazkizale guztiek parte har dezakete, bai zuri-beltzean edo eta koloretako kategorian.

Lan guztiak Bergarako Udaletxera bidali beharko dira azaroaren 18a baino lehen. 20.000, 15.000 eta 10.000 pezetako sariak jarri dira kategoria bakoitzean eta bergararren arteko argazki onenari 10.000 pezetako saria emango zaio. Lehiaketaren oinarriak Udal Kirol Zerbitzuan jaso daitezke.

### Erakusketa

**Diputazioak** antolatutako **Mendiko Argazkien Lehiaketara** aurkeztu ziren lanak ikusgai izango dira Kultur Etxean urriaren 22tik 27ra.

**TOKI-EDER**  
Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**KONDE**  
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

**A**



ARRASATE

**ELKORO**  
**ANTENAK**

✓ **TB Satellite bidez**

✓ **Telebanaketa**

Tfnoa: 79 18 86



## Milaka lagun Elosun

Elosuko Ganadu Ferriak milaka lagun bildu zituen larunbatean auzo horretako San Andres parrokiaren inguruetan. Inoiz baino ganadu gehiago eta kalitate hobea goko aurkeztu zen lehiaketara antolatzaileen esanetan; asturiar behien kategorian Elosuko Kortabarri baserriak lortu zuen lehen saria; pirenaikan Bergarako Behialde Kooperatibak, eta txarolesetan J.M. Maria Beristain azkoi-

tiarrak. Era berean, J.M. Arriolaren zaldia eta I.Astigarragaren behorak ere jaso zituzten sariak. Astorik onenari zegokion saria Lamaño-Etxeberriko Celestina Larrañagak jaso zuen. Aisti baserriko Anjel Osak ardi lehiaketa irabazi zuen, Irureko Manuel Izagirrek eta Aittek txekorrena eta azkenik, ganadu sortarik onena J.M. Lizarralde aurkeztu zuen epai-mahaiaren eritziz.

## Txinpartak

✓ San Prudentziotik Elorriora bitarteko bidea egiteko proiektua probisionalki aprobata du Diputazioak. 2.000 milioi inguruko presupuestoa izango du eta Beasain-Durango karretera hobetzeko egitasmoaren barruan kokatzen da.

✓ Azaroaren 4tik 10era bitartean LAMEk antolatutako *Billar Txapelketaren II. edizioa* jokatuko da. Izen emateak 500 pezeta balio du eta zozketa txapelketa bezperan egingo da.

✓ Igandean, hilak 20, *Arantzazura peregrinazioa* izango da. Autobusa goizeko 9etan irtengo da plazatik eta arratsaldeko 5ak aldera itzuliko da. Autobus txartelak 600 pezeta balio du eta bazkarikoak berriz, 1.300.

✓ Nafarroa Oinezera joateko *Euskal Herrian Euskaraz* Elkarteak autobusa antolatu du. Igandean, hilak 20, Atarrabiara joan nahi dutenek Pol-Poleko tabernan eman dezakete izena.

✓ Gaur ostirala, hilak 18 *Opel Astra* kotxe berriaren aurkezpena egin da, Opel etxeak Olan duen erakustokian.

✓ Gaur ere, *Txibisto Dantzalekuan* gaueko 11etan *Ska* jaialdia izango da. *The Selector* eta *Banana Boat* talde ezagunek erritmo tropikalak eskeiniko dizkigute udazken hotz honetarako. San Juango dantzalekuan, bertan, Ondarroako *Piztiak* eta *Su Ta Gar* eibartarrak iragarri dira azaroaren 29rako.

## GURIDI Altzariak


Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

## TABERNA



Irala 3, Tfnoa: 76 20 50 BERGARA



## POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

## DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

# San Millan

## Harri koxkorak bakarrik geratzen dira

**S**an Millan Ermita Lamariano eta Aizpe bitarteko zelai batean zegoen. Oraindik ere noizean behin azaltzen dira bertan bere hormen harri koxkorak eta beste arrastuak, eta zelaiari "eleiz-aurrea" deitzen diote. Etorri zaigun edo, gutxienez dakigun Ermita honen daturik zaharrena 1.468koa dugu.

Hona hemen 1.528 garren urtean zeuzkan gauzen eta hondasunen kontua: San Millanen aldea eta irudia, irudirik gabeko beste bi aldare, aldare mahaiko ara bat, 9 izara, 5 mantel, argiontzi bat, kanpanilla, jantzi batzuek, 43 sagar, 4 haritz, 3 intxaur, misala, mezetarako mahai zapiak, berunezko kaliza... Eta bertako freirak (serorak) esan zuen bazirala ere beste hiru izar.

Geroago, San Millanen irudia-ekin batera, San Bartolomerena ere izan zuen. Nun ote daude?... Urte asko dira Ermita hau galdu zala, 100dik gora behintzat.

Danok dakigu Bergaran auzo bakoitzak bere ermita daukala, baina Goi-auzoan bi azaltzen zaizkigu: San Millan eta San Martzial. Nere ustetan, auzo bezela edo auzo serbioetarako hartuta, San Millangoa zen auzo-ermita. Orduan..., bera bezain maitea zen San Martzialgoa jasotzeko, auzo asmoetatik aparte dagoen beste arrazoren bat beharko zuten. Hala ere, horretaz berari dagokionean mintzatuko gara.



Ermitei buruz idazten hasi ginen lehenengo astean azaltzen zen bakoitzaren urtea: bat oso zaharra, 1.050 urtekoa, mordoska XV garren gizaldikoak, etab. Zera adierazi nahi nuke, heste hoiiek ez dutela esan nahi Ermitak orduan egin zirenik, hori ez bait dakigu, ordurako bazirela baizik, eta guk dakigun bakoitzaren daturik zaharrena direla.

*Imanol sorondo*

*Argazkian agertzen den Lamariano (Lamaiño) dorrearen eta Aizpe baserriaren artean dagoen zelaian zegoen San Millan ermita. Oraindik ikus daitezke bere hormen harri koxkorak eta beste arrasto batzu. Zelaiari "eleiz-aurrea" deitzen diote.*

### Etxenagusia

**Berezitasunak:**

kremazko kafea eta  
paella Valentziako erara

Bidekurutzeta 9, Tfnoa: 76 20 08

# ederJU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA



Ekonomia sailburu ohiarekin

# M. Carmen Gallastegi

**"Neure departamentuaren garrantzia demostratzeko denborarik ez izanak amorrua ematen dit"**

*Orain dela 46 urte, uztailaren 22an, San Pedro kaleko 7an, bigarren pisuan jaio zen. Gaztaroa Bergaran igaro ondoren Bilbora joan eta ia bizitza osoa bertan pasa du, Sarrikoko fakultatean, hain zuzen ere.*

*Orain hilabete inguru desegin zen Gobernuko emakumezko bakarrak, Lakua utzi eta berriz ere Sarrikora bueltatu den honetan, Gasteizen emandako zortzi hilabetetako esperientzia kontatzen digu. Bere izena, Mari Carmen Gallastegi.*

- Bergaran 17 urtera arte egon zen. Mariaren Lagundian Batxilerato Laborala bukatu zuen arte. Donostian urte bat pasa eta Unibertsitatara joan zen:

Nere asmoa Kimikak edo Medicina ikastea zen, baina PREU letretatik egin nuenez, ez neukan aukerarik. Deretxo, Filosofia edo eta Ekonomikak, hiru horien artean aukeratu behar nuen. Aitak Deretxo ez egiteko gomendatu zidan, Filosofia egitea ez nuen nahi, beraz geratzen zitzaidan

bakarra Ekonomikak. Horrela etorri nintzen Sarrikora.

- Nolakoak izan ziren Bergaran igaro zenituen haurtzaroko urte haiek?

- Kolejioan primeran pasatzen nuen mojekin eta lagunekin. Garai hartako oroitzapen oso onak gordetzen ditut eta orduko lagunak oraindik mantentzen ditut. Egutero joaten ginen eskolara, baita igandetan ere. Igande goizetan uniformeak jantzi eta mezatarak, eta arratsaldean zinera

edo bestela eskolara estudiatzera. Guk domeka arratsaldetan plazan izaten zen dantzaldira heltzeko ahaleginak egiten genituen. Arratsaldetako zortzietan kolejiotik irten eta azken hiru piezatarako ailegatzen ginen. Mojak, uniformeak jantzita joaten ginela enteratu zirenean, hamar minutu gehiago eukitzen gintuzten irtetzen utzi gabe. Hori zen gure drama, domeketako dantzaldira ezin heldu izatea.

Dena dela, mojei eskerrak baino ez dizkiet

zor. Han igaro nituen nere bizitzako 13 urte.

- Bilbon urteak daramatzazu..

- Bai, 1963an etorri nintzen eta bost urte eman nituen karrera ikastentan. Karrera egiten nengoela, nere aizparekin eta Korkostegi ahizpekin, Kontxi eta Mari Carmenekin, konpartitu nuen pisua.

- Karrera amaitu eta gero...

- 1968ko ekainean lizentziatu eta urrian ez-



**Dixula**

TABERNA

Barrenkale 32, Tfnoa: 76 44 95

**GANTXEGI**

MERZERIA

BOLU 28 Tfnoa: 76 00 69  
BERGARA

**TXAMONIX**

Kafetegia

Bolu 30, Tfnoa: 76 42 55

kondu nintzen. Urte be-  
rean senarra eta biok Bri-  
tainia Haundira joan gi-  
nen, *London School of*  
*Economics* ekonomia i-  
kastetxean masterra  
egitera. Teoria Ekonomi-  
koan Masterra lortu eta  
Sarrikora bueltatu nin-  
tzen. Klaseak ematen hi-  
ru urte eman eta Dokto-  
radutza egitera Estatu  
Batuetara joan ginen, se-  
narra, bi semeak eta lau-  
rok. Bi urte egon ginen  
han.

1977an Doktoratu eta  
berriro etxera. Harrez-  
kero Sarrikon nago kla-  
seak ematen.

- Ze harreman dau-  
kazu politikarekin?

- Ez daukat inolako  
harremanik. Ikasten  
nengoela, garai hartako  
estudiante gehienak be-  
zalaxe kezka politikoak  
neuzkan, pentsa, 1963an,  
Bilbora etorri nintzene-  
an, Frankismoaren aur-  
kako urte gogorak bizi  
ziren, Txabi Etxebarrieta,  
Joaquin Legina Madrile-  
ko Autonomi Elkarteko  
Presidentea, Merce Sala  
RENFEko Presidentea...,  
Sarrikon zeuden orduan.

Alderdi Politiko ba-  
ten ez naiz sekula afilia-  
tu, baina herri honetako  
politika hurbiletik ja-  
rraitzen saiatu naiz.

- Jaurlaritzako espe-  
rientziaz hitzegin deza-  
gun. Nork deitu zizun



Lakuara joateko?

- Carlos Garaikoetxe-  
ak. Hemen, Fakultateko  
despatxo honetan jarrita  
nengoela telefonotik  
deitu eta berak eskeini  
zidan Gobernu berriko  
*Ekonomia eta Planifikazio*

**"Carlos Garai-  
koetxeak eskeini  
zidan Gobernu  
berriko  
Ekonomia eta  
Planifikazio  
Sailburua izatea.  
Harrituta utzi  
ninduen"**

Sailburua izatea. Harri-  
tuta utzi ninduen, ez bait  
nuen horrelakorik espe-  
ro. Arratsaldeko ordu-  
batean izan zen hori eta  
lauretarako baietza eman  
nion, aizparekin berba e-  
gin ondoren.

Amari ez zion eraba-  
kiak graziarik egin. Poli-  
tikan sartzea baino hobe  
nuela *Banco Bilbao Vizca-*  
*yako* kontseilari izan,  
baina tira...

- Zer sentitu zenuen  
kargutik kanpo laga  
zintuztenean?

- Amorrua eta frus-  
trazioa. Osó azkarra izan  
zen dena, Lehendakariak  
astelehenean arratsalde-  
ko ordubatean eman zi-  
gun notizia eta astearte-

an etxean nintzen nere  
paper guztiekin.

- Krisialdiko egun  
haiek nolakoak izan zi-  
ren?

- Tentsio egoeran bizi  
arren, gobernu kideen  
arteko harremanak onak  
izan ziren. Jaurlaritzako  
partaideen arteko gataz-  
ka baino gehiago, alder-  
dien arteko problema i-  
zan zen. Arazo politikoak  
izan zen.

- Hirukoitz naziona-  
lista gobernu formularik  
egokiena zela uste duzu?

- Bai, ilusio haundia  
neukan gobernu hartan.  
Biolentziari uko eginez  
lan inportanteak egin

**K**abia

**Altzariak**

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

ileapaindegia

eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

genitzakeelakoan nengoen..., baina gertatutakoa ikusita huts haundia egin dugula uste dut. Pena bat da...

- Zortzi hilabeteko lana ezerezean geratu daitekeela ikustean zer sentitzen da?

-Eskuartearen geneukan proiektua pikutara joan daitekeela ikustean inpotentzia sentazioak gairitzen zaitu. Oso gogorra da

- Jaurlaritzan eman duzun hilabete horietan ezertarako denborarik izan duzu?

- Bai. Gauzak egin ditugu. Komunikabideek behin eta berriro errepikatu dute gobernuak ez zuela lanik egiten, ez zela herria aurrera ateratzeko gai, hau eta bestea. Ez nago ados eta Lehendakariak sarri salatu du ko-

munikabide batzuren jorkaera hori.

- Lehendakariak zer esan zizun kargutik kanpo utzi zintuenean?

- Gobernu hartan sinesten zuela eta horrela bukatzeak min egiten ziola. Lana leialtasunez egin genuela bazekiela eta eskerrak eman zigun.



- Askoren ahotan entzun dugu Jaurlaritzak ekonomia arloan ez duela konpetentzia garrantzitsurik, zer diozu horri buruz?

- Horrelako adierazpenek amorrua ematen didate. Gobernu batean, eguneroko dirua ondo erabiltzea bezain garrantzitsua, herriak nora jo nahi duen planifikatzea da. Zortzi hilabete gobernuan egon ondoren amorrua ematen dit neurte departamentuaren garrantzia demostratzeko denborarik eduki ez izanak.


**"Gobernu batetan, eguneroko dirua ondo erabiltzea bezain garrantzitsua, herriak nora jo nahi duen planifikatzea da"**

## Izkutuko kontuak

- Marxista izan zara inoiz? Eta hippya? Ez.
- Politiko bat? Indira Ghandi.
- Politikorik sexiena? W. Brandt.
- Noiz arte iraungo du Fidelek? Bi urte gehiago.
- Pertsonaia historikoa: San Francisco Javier.
- Gertakizun historikoa: Zirujiaren arloan egindako aurrerapena eta transplanteak.
- Irla desertu batetara eramango zenituzkeen hiru gauza: liburu bat, xaboia eta lapitza.
- Janari eta edari faboritoak: Legatz frijitua eta Errioxako ardoa.
- Paul Newman ala Robert Redford? Paul Newman.
- Hiri bat: Bergara.
- Euskal Herriko txokorik politena: Urbiako zelaia eta Mundakako ibaia.
- Gordetzen duzun oroitzapenik onena: Ezkondu nintzen eguna.
- Txarrena: Aitaren heriotza.
- Egitea gustatuko litzazukeen bidaia: Tibetera.
- Moda disenatzaile faboritua: Purificación García.
- Gustokoen duzun kirola: Esku pelota.
- Zure defektu nabarmenena: Burugogorkeria.
- Birtutea: Konstantea izatea.
- Amets bat: Munduko haur guztiak barre eta jolas egiten ikustea.
- Pekaturik barkagarriena: Kalte egiteko asmorik ez duen gezurtxo bat.
- Konfesaezinezko mania bat: Afalondan txokolatea jatea.
- Pertsona batetan gehien baloratzen duzuna: Zintzotasuna.
- Euskal ekonomiari nota zerotik 10era: 5.
- Euskal politikoei nota zerotik 10era: 5.

**IGARZA**  
MERZERIA  
LENZERIA

D. IRALA 5  
Tfnua: 76 24 88 BERGARA



**Laskurain**  
saneamenduak


Barrenkale 35, Tfnua: 76 24 89 BERGARA



## Kiroldegiko Taberna



Labegaraleta Tfnoa: 76 56 41



**ETXE-  
-AUNDI**

Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
ONATI

**GURIA**

Taberna

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34

**FS** sistema

oto ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkiak momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

## Zergatik etorri zara Elosuko feriara?



Mertxe Lopez  
46 urte, etxeoandrea

Anbienteagatik batez ere, eguraldi ona aprobetxatuz goiza hemen pasatzera.



John Deighan  
26 urte, irakaslea

Anbiente ederra dagoela esan didatelako eta produktuak ere dastatzera, dudarik ez.



Jose Luis Aranzeta  
33 urte, langilea

Goiz parte polita pasatu eta zerikusi ugari dagoelako.



Aitziber Alberdi  
20 urte, langabetua

Baserriko produktu ugari aurki dezakezulako eta giroa ere jatorra delako.

## LITXAR Kruasantegia

- Gosariak
- Askariak
- Hanburgesak /Sanwichak / Plater konbinatuak

Fraiskozuri enparantza 4 Tfnoa: 76 55 45 BERGARA



### Hill versus Thomas

Hollywooderako azken gidoia Clarence Thomas epailearen eta Anita Hill bere idazkari izandakoaren eskutik etorri zaigu. Uste izatekoa zen bezala, estatu batuarrak eta munduko gainontzekoak ere, hortxe egon dira zai jakin nahirik epaileak bere lankide ohiari seksu erasorik egin zion edo Anitak protagonismoa lortu nahirik eta Thomas profesionalki hondoratu nahirik jokatu duen, epailea Tribunal Goreneko kide izendatu behar zuten une honetan.

Garbi dago bai politikoen eta baita epaileen zenbait mailatan eraso seksualen gisakoei ez zaiela garrantzi handirik ematen, gertatua gertatuta ere Estatu Batuetako Senatuak Thomas herriko epaileritza organu goreneko kide izendatu bait du. Epailaritzako goi karguen ohoragarritasuna lupaz aztertuko da aurrerantzean Estatu Batuetan eta eztabaida honen mahai gainean jarri duen galdera honako hau da: zer eska diezaioke gizarteak halako maila altuko erantzunkizuna duen pertsona bati.

Zenbaiten eritziz arazoari garrantzia haundiegia eman zaio ez bait dute uste hain larria denik gusto txarreko komentario batzuk egitea. Edozein modutan ere, amerikar gizartearen eraso sexualekiko sentsibilitatea indartu egin da eta hori Anita Hillen garaitza-pena izan da, helburu politikoak edo bengantza asmorik zuten ala ez albora utzita.

Juan Antonio Migura



### Ertamerikako nekazariekin elkartasuna

Azken egunotan Ekuador-tik etorritako bi nekazari lagunən bisitak, bere herriaren mixeria eta erreibindikazioek, eman behar ligukete bai zer pentsatua. Ekuador-ko lurrak, Hego eta Ertameriketako gehienak bezala, oso aberatsak dira lehengai edo errekurtsu naturaletan, eta nahikoa eta sobera emankorrek dira denak asetuta eta gustora bizi izateko.

Baina zoritxarrez, Ameriketako konkista dontsu hartatik, lurra, terrateniente bakar batzuren esku egonik, bertako errekurtsorik onenak Europara bidaltzen dira. Ondorioz, 9 milioi biztanletik erdiak baino gehiago mixeria gorrian daude, espoliazio hori dela eta lurreko ondasunak betirako galduz, ingurugiroaren hondamendia eta indijenaren pobrezia elkartuz.

Eta guk "europartxook" zer esan dezakegu? Europako nekazal politika, lurralde hauen zapalketan oinarritzen da. Handik gai merkeak inportatuz, agroindustriak ari dira gizentzen, intentsifikazioaz, lur eta uren kontaminazioa gehituz, bertako jeneroaren kaltetan noski. Jaten ditugun jenero masifikazio horien «merketasunak» merezi ote du gure anai indijenaren zapalkuntza hori?

Maite Aristegi

## ERREKI

Erretegia

Berezitasunak:

Bixigua eta txuletak

Fraiskozurl Enparantza

Tfnoa: 76 38 51

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.**

**Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## HALTZARI

Fagor altzarien  
banatzailea.

Sukalderako altzariak

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA

MINER Ardo onak,  
ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

## Zeuk galde



**37. Etxekoandrea naiz eta eguna deprimitua pasatzen dut. Zerbait egingo nuke baina ez dakit nora jo. Zer egin dezaket?**

Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak hainbat ekintza (Zer?) antolatzen ditu urte gutxian zehar. Eurretan parte hartzeak beste emakume batzuekin harremanetan jartzeko aukera emango dizu eta laguntza ederra izango duzu zure arazoei irtenbidea bilatzeko.

Horretaz aparte, gauza pila bat ikasi ahal izango duzu, gainera.

Zatoz Zerbitzura eta emango dizugu argibide gehiago.



### Erakusteko ikasten

Hego Ameriketatik etorri zaizkigu *Juan Bautista* eta *Juan Arevalo* ekuadortarrak hartu-eman programa bati esker. Aspetete daramate gure artean baratzagintzari buruz antolatutako ikastaroan, San Antonion dagoen Bailerako Urteaga Nekazal Bulegoan. Goizetan klase praktikoak izaten dituzte Antzuolan eta arratsaldetan berriz, praktika hori gauzatzeko beharrezkoa den teoria ikasi behar dute, bueltan, beraien lagunei hemen ikasitakoa erakutsi beharko dietelarik...

### Gogor entrenatzen

*Iñigo Igartua* Beljikan dugu azken hilabete t'erdian *Paul de Brawer* beljiar txapel-dunarekin aurtengo ziklokross denboraldirako gertatzen. Aurten gainera, Iñigo Europan zehar jokatu diren *Superprestijioko* 11 lasterketak korritzera gonbidatua izan den Estatuko txirrindulari bakarra dugu. Astelehenean itzuliko da Beljikatik eta hilaren 27an korrituko du bere lehen proba gure artean Kortezubin.



## GESTORIA EGUREN

*M. Pilar Eguren Diez*  
Kolejilatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea,  
Tfnoa: 76 21 65 - 76 24 45

## ARDATZA

*Brikolaketa*

ateak  
eta  
horma-armairuak

Mahasterreka 4, Tfnoa: 76 18 93

BERGARA

□ **Eskultura**

Iganderarte, hilak 20, *Iosu Sarasua*, Eusko Jaurlaritzako *Gure Arte*a saria irabazi berri duen 32 urteko azpeitiarraren eskultura erakusketa bisitatzeko aukera duzue Kultur Etxean. Dudarik ez da Iosuk estilo bitxia landu duela eta, esate baterako, zigarro paperekin egindako lanak aurki daitezke Bergaran ikusgai dituen lanen artean. "*Arte barruan moldeak apurtzen direla esatea oso zaila da, materiala ez da gauza, erabilpena baizik. Eta nerea oso konbentzionala da*". Saria eskultura sailean irabazi arren Iosuren lana eskultura eta pinturaren arteko mugan koka daiteke, "*gauza anbigua da, pinturaren eragina nabaria da. Binomio hori erabiltzea interesatzen zait, batzutan bestetan baino nabarmenkiago lortzen dudalarik*". Dugun eskulturaren ideia guztiz apurtzen duen erakusketa zai duzue beraz iganderarte.



Artelekun izan den arren, Iosu ez da Arte Ederretako Fakultatetik pasa.

*Zertan dihardute ba?*

**BIXENTE PAGALDAI**



Donostiako maratoia 14. aldiz korritu zuen igandean 43 urteko angiozartar honek, maratoi horren jaiotzatik urte baten ere *kale* egin ez duelarik. Igandean 106. postuan sartu zen 2 ordu, 46 minutu eta 25 segunduko denbora eginez.

**ALVARO ESPARZA**



Bergarako Udaleko EEko zinegotzia bere alderdiak Gipuzkoan eratu duen jectorako partaidea da. 38 urteko nafar hau Euskadiko Ezkerrako Biltzar Tipiko kidea dugu.

**ARKUPE**

**Taberna**

Aurrez enkargatutako afariak

San Lorentzo 23, Tfnoa: 76 23 44



**FOTOKOPIAK - ENKUADERNAZIOAK**

Bildumagarriak - Aldizkariak - Enpresa liburuak

**LIBURUDENDA**

Prentsa - Eskola materiala - Oparigaiak

San Lorentzo 23, Tfnoa: 76 58 28

## Hau dok barreguria !!

Aspalditik zebilen Joxe neska baten atzetik baina hain zan lotsatixa eze, etzekixen hasierako berbia zela emon be.

Noizian behin txikito batzuk gehixao josten zittuan, balientetze alde, baiña hala ta guztiz be larri ibiltzen zan gure mutila hasierako berbia emoten asmau ezindda. Iluntze baten tabernatik urten zeban burubide hau zerabilela:

"Gaur zeozer esan biha jotsat, gaur bai... baiña zela hasi? zure biharrian naiz... Ez hola ez. Zu, Maitxu, elkarr endako sortuak gara... Ezta. Ia beste modu batera: zu, Maitxu, zu ta... ni ta... gure semiak eta... Ez!, ezetz, hain agudo ez. Bestela laster nok aittajauna. Ia oinguan asmatzen doten: zu, Maitxu, zuk egindako berakazopak... Aj! Zer berakatz eta zer kipula. Berriz be nahastu nok. Ia ba: zu Maitxu..., zu, Maitxu... A! eta nere

presentaziñua. Maitxu han izango dok eta urtengo jok nahi dabenak. Hor konpon Mari Anton. Horraittio, noizbaitt neregangatzen bajuat orduan bai izango dala nere neria. Noizbaitt esan juat? Ez, gaur bertan. Koño! hoixe falta giñuan bakarrik"..

Burua holakoz beteta Untzagako plazara urreratu zan Joxe. Han zeuan Maritxu korroertzian bakarrik, lagunengandik libre. Hau zan Joxen aukeria. Urreratu jakon eta esan ez esan egon zan apur bat. Maritxu ikusten zeban bakoitzian eztarrixa sikatzen jakon eta hankak dardaraz hasten. Azkenian etsi etsixan hasi zan:

- Zu, ni Joxe naiz.  
- Ene, ba ni enaiz Joxe -soltau zotsan Maritxuk.

Jose gizajoak, nun zeuanik pe etzekixela alde egin zeban belarrixak apal apal egindda.


Juan San Martin.  
"Zirikadak"

## Antzinako kontuak

### Hodei-kanpaiak San Migelen

San Migelen mendixka toki askotatik ikusi leike, baita Deskarga eta Gatzaga bertatik ere, antxinako idazti batek dioenez. Bere Hodei-kanpaia oso famatua izan da aspalditik. XVIII garren gizaldian, udara sasoieta gutxienez, kanpaiaren lokarria Ermitako zaintzailearen etxeraino luzatzen zan, hodeia ikusitakoan, denborarik galdu gabe, kanpai hotsa Bergara guztira lehen bait lehen zabaltzeko.

Hodei beldurgarriren bat San Migeleko Ermitatik ikusten zutenean, berehala kanpaia jotzen zen, esaten dugun bezela, eta San Pedroko eta Santamainako abadeak antxintxika joaten ziren beren Eleizetara hodeiaren aurkako konjuroa egitera, roketea jantzi eta liburua eta ur bedeinkatua hartu ondoren. Santamainakoa Elizpe txikitik egiten zen. Horren kargoa asterako izendatutako abadeak zeukan, eta Don Pedrok



berak ere ezagutu du Santamainan. 1.773 garren urtean zegoen hodei-kanpaia hautsita zegoen eta urtu egin zuten berria egiteko; 17 arroba eta 8 libra pisatzen zituen.

Hasieran Ermitaren izena Aritzetako San Migel bazen, geroago, XV garren gizaldian, Ezkialdaikoa deitu zitzaion. Ezkialdai ezkilagatik edo kanpaiagatik ote?

Beste ohitura bat ere mantendu izan da: bularrereko umeak, "errosene" izeneko buruko kostra zeukatenean San Migelgo Ermitara eramaten zituzten sendatu nahiean.

Imanol Sorondo

**SUBIJAI**

Gazteentzako moda

Irlizar 1, Tfnoa: 76 42 41

**Tximak**  
Ileapaindegia

Fraiskozuri 3, Tfnoa: 76 56 69



J. ALBERTO  
GOROSABEL  
MENDIZABAL

MEDIKU - DENTISTA

Fraiskozuri 5, behea Tfnoa: 76 56 88

**Zubiberrri**  
Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

**GISASOLA BURDINDEGIA**

" Erratzu "

Pedro Deuna 8,

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA





Alfonso Miner, Fontsi. Urriaren 26an, hiru urte hil zela.

## Fontsi memoriala

Alfonso Miner izan zenaren oroimenezko "II. Fontsi Memoriala" antolatu dute bere lagunek datorren larunbaterako, hilak 26. Aurtengoan ekitaldiak ez dira futbole- ra bakarrik mugatuko; goizeko 9etan futbito txapelketari hasiera emango zaio, 10etan Igo Mountain Bike Travesia jokatu da eta 12 t'erdietan salda beroa txorizo-

arekin emango zaie Seminarioko patiora hurbiltzen diren guztiei. Arratsaldeko 3retan berriz, Bergarako zenbait eskaladorek kirol eskalada exhibizioa burutuko dute; 7 t'erdietan I. Herri Barruko Milla Herrikoia korrituko da herriko kaleetan, 5etan trialsin exhibizioa izango da eta amaitzeko, futbol lehiaketaren finala.

# Txinpartak

✓ Bihar larunbata, hilak 19, Bergara Igerilari Elkarateak hasiera emango dio aurtengo denboraldiari Legazpin Ondarru, Eibar, Arrasate, Oñati eta Legazpia bertako taldeen aurka. Hurrengo larunbatean Bergaran jokatuko dira igeri probak.

✓ Pablo Irizar bergarar gidariak 11. postua lortu zuen joan den igandean Jerez turismoen Espainiako Txapelketarako baliogarria zen proban. Pablok hurrengo proba Alcañizeko zirkuituan izango du hemendik bi astera.

✓ Astebukaeran honako bergarar saskibaloi taldeek jokatuko dute Kiroldegian: emakumezkoen jubenilen taldeak Loiolaren aurka jokatu du (larunbata, 17.30etan) eta ordu berean Bergara-Almen kadeteetan. Gizonezkoetan berriz, juniorrek Andraitzen aurka (larunbata, 16.00etan) eta jubenilek Arrasateren aurka neurtuko dituzte indarrak.

✓ Eskubaloian berriz, honako talde hauek jokatuko dute Bergaran: emakumezkoetan, kadeteetan, Bergara-Urola (larunbata, 20.00etan) eta gizonezkoetan, jubenilek Don Boscoren aurka jokatuko dute (larunbata, 18.45etan) eta juniorrek Donostiako Bizkor taldearen aurka.

## Fitxaketa berria

Bergara futbol taldeak, Juan Carlos Gomez de Segura fitxatzea lortu du denboraldiaren amaiera arte. Segurak, Bergaran jokatu aurretik, Durango, Alaves eta Eibar bezalako taldeetan jokatu du eta joan den denboraldiaren amaieran erretiratu zen; Alex Garitano presidenteak denboraldi hasieratik, behin eta berriz, egin dio futbolera bueltatzeko proposamena, jakinean Gomez de Segurak asko egin dezakeela zelai erdian jokoa hobetzeko. Igande honetan Oiartzunen aurka debutatzea espero da.



**MEKOLALDE** Taberna  
Larunbatean, 19an, itxita  
Barkatu eragozpenak.

Mekolalde, Tfnoa: 76 50 18 BERGARA

*Pepelu*

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07



*Jose Maria Sañudo Lasagabaster lagunartean*

**B**ergarar ezagunez osatutako lagunartea dakargu gaurkoan, tartean orain dela gutxi oso entzuna izan den gizona dela: Jose Maria Sañudo Lasagabaster (makurtuta, eskumaldean). Erretratua gerra aurretioxan aterata dago eta bertan agertzen direnetatik, bi ezik, gainontzekoak hilda daude.

Hona bada zeintzuk diren, ezkerretik eskumara.

**Zutik:** Toribio Etxeberria (Banco de Vizcaya-ko zuzendaria izan zena), Felix Ilarduia, Ignacio Maria Galarraga, Jesus Sañudo Lasagabaster eta Nikolas Gallastegi.

**Makurtuta:** Jose Larrañaga "Alaia" (gerra aurrean bonba batek txikitu zuen Alaia Kafetegikoa) eta Jose Mari Sañudo Lasagabaster, joan zen hilean Bergarako Udalari hainbat liburu eta koadro eman zizkiona.

*Estepan Plazaola  
Argazkia: Karmen Jauregi*

**EGUZKITZA**

**Taberna-Erretegia**

**Berezitasunak: menuak,  
arrainak eta  
idi txuletak.**

Harane-erreka 30 Tfnoa: 76 56 03

**Harategia-Saltxitxadenda**

*Luis Mari  
Rezola*

Matxiategi 7, Tfnoa: 76 17 63

**ZAPELAITZ**

**Taberna**

**Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera**

San Lorentzo 25, BERGARA



**ETXEBIZITZA**

- Pisua salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera 764252
- Pisua salgai Koldo Elizalde. Tfnoa: 765823.
- Pisu txiki edo buhardilla bat hartuko nuke alokagailuan. 763270
- Pisua salgai; garaje eta guzti. Tfnoa: 763911.
- Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.
- Pisua salgai: bi gela saloia, sukaldea bainua, buhardilla eta berogailu zentrala. Tfnoa: 76 49 71

**LANA**

- Uberan neska euskaldun bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 764149
- Neska euskaldun bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 760257. 7-leta 4.30-8.
- Arratsaldez lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen. Deitu: 765482
- Produzio saileko injeniero-tekniko batek lan egingo luke. Tfnoa: 761913.
- Neska euskaldun bat behar dut haurrak zaintzeko. Deitu: 761852 edo 765261.

- Mutil batek furgoneta batekin errekauek egiten lan egingo luke. Deitu: 742063.

**SALDU-EROSI**

- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.
- Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 7625 12
- Karrerako bizikleta bat mendiko bizikleta batengatik trukatu nuke. Deitu: 763269.
- Siberian-husky's arrazako txakurkumeak salgai. Deitu: 761479

- 3 pertsonentzako iglu kanping-denda berria salgai. Deitu: 763495
- Karabana berri-berria salgai 5 pertso-nentzako abantzeeta guzti. Deitu: 761388.
- Parapente STROM-25 berri-berria salgai. Deitu: 763738.
- Skate-ko patinete berri-berria salgai. Tabla Hard-Times, ejeak Gold-Wine eta erruberak Mini-Rat. Deitu: 762682.
- Motorra salgai: Osa Horia, 350 cm. kubikoa. Merkea eta ondo zaindua. Tfnoa: 7648 52. Arratsaldeko 7etatik aurrera.

**Hildakoak**

*Eva Maria Garcia Chups*  
23 urte, urriak 16an

**Jaiotakoak**

*Eider Larrañaga Roca*  
urriak 6an  
*Adrian Castro Gonzalez*  
urriak 7an  
*Leire Mellado Garcia-Gil*  
urriak 8an  
*Maitane Garai Garitano*  
urriak 11an  
*Andoni eta Miren Arruabarrena*  
urriak 12an  
*Maider Iturbe Urizar*  
urriak 11an

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

**BRIKOLAIA**  
**AUTOMOZIOA**

**Turismoak,**  
**kamiolak, etab.**

**Bolu, Tfnoa: 76 44 04 BERGARA**

# U. BIZI ALTERNATIBOA

## HELBURUAK:

Drogen gehiegizko kontsumora bultzatzen duten aktibitateen ordez  
beste ekintza desberdin batzuk bultzatu, eta horrela  
Drogomenpekotasunen Prebentzioa Sendotzea.

Gizarte Ongizateko Saileko Drogamenpekotasunen  
Prebentziorako batzordeak **PARTE HARTZERA  
GONBIDATZEN ZAITUZTE.**



**BERGARAKO UDALA**

## EMAKUNDE<sub>k</sub>

( Emakumearen Euskal Erakundea )

1991 - 1994rako Euskal Autonomia Elkarterako  
Emakumeentzako Ekintza Positiboen Plangintza ezagutera  
emateko kanpaina ibiltari bat burutu du.

**URRIAK 21** ean:

- Goizeko **10.30**etatik eguerdiko **2**etara Bonifazio Laskurain  
pasalekuan **BULEGO MUGIKORRA**
- Arratsaldean **7**etan, Udaletxeko Pleno Aretoan **HITZALDIA**



**Bergarako  
Emakumearen Udal  
Zerbitzuaren laguntzaz**